# Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

# Boletín Oficial de Gipuzkoa

2008ko ekainak 18 asteazkena
116 Zenbakia

Miércoles 18 de junio de 2008
Número 116


## LABURPENA — SUMARIO


| | | Orrialdea |
|---|---|---|
| 4 | Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa | 18.611 |
| 5 | Estatuko Administrazioa | 18.622 |
| 7 | Udal Administrazioa | 18.644 |
| 8 | Justizia Administrazioa | 18.713 |
| 9 | Iragarkiak | 18.726 |

| | | Página |
|---|---|---|
| 4 | Administración del T.H. de Gipuzkoa | 18.611 |
| 5 | Administración del Estado | 18.622 |
| 7 | Administración Municipal | 18.644 |
| 8 | Administración de Justicia | 18.713 |
| 9 | Anuncios | 18.726 |


## 4 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACION DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA 4

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

**Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzua**
**Balio Erantsiaren Gaineko Zerga**

*Foru Ogasun honetako agirietan azaltzen diren helbideetan aurkitu ezin izan diren zergadunei zuzentzen zaien jakinarazpena.*

— Jakinarazpen oharra:

Jakinarazpena bi aldiz egiten saiatu arren, ezinezkoa gertatu da Administrazio honekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik. Beraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauan 108 artikuluan dioenaren arabera, jarraian aipatzen diren pertsona, zergapeko edo ordezkariei dei egiten zaie behean adierazten den tokian ager daitezen jakinaraziak izateko. Agertzeko epea hamabost egun naturala da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aipatu epea igarotzen bada interesatuak agertu gabe, jakinarazpenak eginak izan direla ulertuko da agertzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

### DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

**Servicio de Gestión de Impuestos Indirectos**
**Impuesto sobre el Valor Añadido**

*Notificación a contribuyentes que no han podido ser hallados en los domicilios que figuran en los documentos de esta Hacienda Foral.*

— Aviso de notificación:

En virtud de lo dispuesto en el artículo 108 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se cita para que, en el plazo de quince días naturales contados a partir del siguiente al de publicación del presente anuncio, se personen en el lugar que más abajo se indica, para ser notificados por comparecencia, a las personas, obligados tributarios o representantes que se relacionan a continuación, debido a que intentada la notificación por dos veces, ésta no ha podido practicarse por causas no imputables a esta Administración.

Transcurrido dicho plazo sin personarse, se entenderán efectuadas las notificaciones desde el día siguiente al de vencimiento del plazo señalado para comparecer.

*Agertzeko tokia:*

*Organoa:* Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzua. Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren Atala.

*Helbidea:* Errotaburu Pasealekua 2-2. - 20018. Donostia (Gipuzkoa).

Donostia, 2008ko ekainaren 9a.—Zerbitzuburua.

(4867) (7113)

*Lugar de comparecencia:*

*Organo:* Servicio de Gestión de Impuestos Indirectos. Sección del Impuesto sobre el Valor Añadido.

*Dirección:* Paseo Errotaburu 2-2.ª 20018. Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

Donostia-San Sebastián, a 9 de junio de 2008.—El Jefe del Servicio.

(4867) (7113)

| *Zergaduna* *Contribuyente* | *NAN-IFZ* *CIF-NIF* | *Errekerimendu zka.* *N.º requerimiento* | *Erreferentzia* *Referencia* |
|---|---|---|---|
| BIZKAI-ETORBIDEA SL | B20870648 | 08 0000631 | 300 2007 1 |
| BIZKAI-ETORBIDEA SL | B20870648 | 08 0000632 | 300 2007 2 |
| COCINAS ASTINDU SL | B20857025 | 08 0003983 | 390 2006 0 |
| CORIO REAL ESTATE ESPAÑA SL | B79462354 | 08 0004272 | 320 2007 N |
| GIKAUTXO SL | B20776696 | 08 0002729 | 300 2007 1 |
| GIKAUTXO SL | B20776696 | 08 0002730 | 300 2007 2 |
| GIKAUTXO SL | B20776696 | 08 0002731 | 300 2007 3 |
| HOSTAL OLARRONDO SL | B20677787 | 08 0000277 | 300 2006 1 |
| MUGICA CAMPOS FERNANDO | 15994356H | 08 0000920 | 300 2007 2 |
| RODRIGUEZ PISADOR IVAN | 44561472F | 08 0002944 | 300 2007 3 |
| SANCHEZ AYARZA JOSE MANUEL | 15903397R | 08 0002725 | 300 2007 1 |
| SILGUERO JUAREZ IKER | 44563191R | 08 0002716 | 300 2007 3 |
| URBIA K L CANTERIA SL | B20771952 | 08 0003217 | 300 2007 1 |
| URBIA K L CANTERIA SL | B20771952 | 08 0003218 | 300 2007 3 |

## BERRIKUNTZAKO ETA JAKINTZAREN GIZARTEKO DEPARTAMENTUA

*Iragarkia*

2008ko ekainaren 17an Diputatuen Kontseiluak onartu ditu «Gipuzkoan eskulangintza sektorea sustatzeko plana» programako laguntzen oinarri arautzaileak eta 2008. ekitaldiko deialdia. Aipatu oinarriak eta deialdia jarraian argitara ematen dira:

I. ERANSKINA

### «GIPUZKOAKO ESKULANGINTZA SEKTOREA SUSTATZEKO PLANA» PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

*1. oinarria. Diru laguntzaren xedea.*

Oinarri hauek «Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko planeko» programako diru laguntzak ematea arautzen dute.

*2. oinarria. Pertsona eta entitate onuradunak.*

2.1. Oinarri hauetan araututako diru laguntzak jaso ahal izango dituzte hurrengo atalean aipatzen diren pertsona eta entitateek, betiere martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoaren, 12. artikuluko debekuren batek eragiten ez badie.

2.2. Oinarri hauetan ezarritako laguntzen pertsona eta entitate onuradun izango dira eskulangintzan aritzen direnak, eskulangintzako lantegi eta enpresak, eta horien ordezkaritza entitateak.

## DEPARTAMENTO DE INNOVACION Y SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO

*Anuncio*

En fecha 17 de junio de 2008 el Consejo de Diputados ha aprobado las bases reguladoras así como la convocatoria del ejercicio 2008 para la concesión de ayudas del Programa «Plan para el fomento del sector artesanal de Gipuzkoa», que se publican a continuación:

ANEXO I

### BASES REGULADORAS DEL PROGRAMA DE AYUDAS «PLAN PARA EL FOMENTO DEL SECTOR ARTESANAL DE GIPUZKOA»

*Base 1.ª Objeto de la subvención.*

Las presentes bases regulan la concesión de subvenciones del Programa «Plan para el fomento del sector artesanal de Gipuzkoa».

*Base 2.ª Personas y entidades beneficiarias.*

2.1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las personas y entidades a las que se refiere el apartado siguiente, siempre que no se vean afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.2. Tendrán la condición de personas y entidades beneficiarias de las ayudas establecidas en las presentes bases las personas que se dediquen a la artesanía, talleres artesanales y empresas artesanas y sus organizaciones representativas.

2.3. Eskulangintza enpresa edo lantegi gisa hartuko dira maiatzaren 10eko 28/2005 Foru Dekretuaren, Gipuzkoako Eskulangintza arautzekoaren, 2. artikuluan definitutako eskulangintzan jarduten diren lantegi, enpresa eta unitate ekonomikoak, eskulangile indibidualak eta ondasun erkidegoak barne, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Eskulangintzako jarduna ohikoa izatea.

b) Iraunkorki lanean ari diren langileak hamar baino gehiago ez izatea, kontuan hartu gabe lanbidea ikasten ari direnak, ezkontidea eta zuzeneko familiakoak, odol-ahaideak, adopziokoak edo ezkon-ahaideak.

c) Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Errolda Orokorrean izena emanda egotea, Lehen Atalean.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izena emanda egotea kasuan kasuko jardueran.

2.4. Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzen onuradunen helbide soziala eta zergetarakoa Gipuzkoan egongo dira.

*3. oinarria. Diru laguntzaren xede diren jarduerak.*

3.1. Gipuzkoan eskulangintza sektorea sustatzeko planeko laguntzak honako kasu hauek finantzatzeko diru laguntzak izango dira:

a) Eskulangintzako lantegi eta enpresa berriek ibilgetu materialean eta jarduera berria merkaturatzeko gastuetan egiten dituzten inbertsioak.

b) Lehendik dauden eskulangintzako lantegi eta enpresek ibilgetu materialean, web orriak egiteko eta Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo egiten diren azoketara joateko egiten dituzten inbertsioak.

c) Eskulangintza sektoreko erakunde adierazgarriek bultzatuta, kudeaketa, merkaturatzea eta berrikuntza hobetzea berariazko xedetzat duten inbertsioak eta proiektuak.

d) Eskulangintza sektoreko elkarte edota erakundeen azoka edota eskulangintza lehiaketak antolatzea.

e) Gipuzkoan erreferentziakoak izan diren eta desagertzeko arriskuan dauden eskulangintza jarduerak berreskuratzera zuzendutako ekimenak, euskarri digitaletan eta ikus-entzunezkoetan eta oinarri pedagogikoetan oinarritutakoak.

3.2. Aurreko ataleko d) epigrafean, eskulangintza azokak antolatzearekin zerikusia duten jardueren kasuan, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Gutxienez bi egun irautea.

— Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Errolda Orokorreko lehen atalean izena emandako pertsona eta enpresa eskulangileen partaidetzak gutxienez azokako partaideen %40 izan behar du.

— Parte hartzen duten pertsona eta enpresa eskulangile guztiek, azoka egiten denean, dagokien erregistroan altan egon eta hori ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dute.

— Azokan parte hartzeko beharrezko informazioa helaraztea Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Errolda Orokorreko lehen atalean izena emandako pertsona eta enpresa eskulangileei.

3.3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak lankidetza hitzarmenak egin ahal izango ditu programa honen xedeak betetzeko jarduera egokia duten eta aurreko c) atalean aipatutako jarduketak egiten dituzten elkarte eta entitateekin.

2.3. Se considerarán empresa de artesanía o taller artesanal a aquellos talleres, empresas y unidades económicas, incluida la persona artesana individual y las comunidades de bienes, que desarrollen la artesanía de la manera definida en el artículo 2 del Decreto Foral 28/2005, de 10 de mayo, regulador de la Artesanía de Gipuzkoa, y que cumplan con los siguientes requisitos:

a) Desarrollar la actividad con habitualidad.

b) No exceder de diez el número de personas trabajadoras empleadas con carácter permanente, excepción hecha de las personas en proceso de aprendizaje, cónyuge y familiares en línea directa, consanguínea, adoptiva o por afinidad.

c) Estar inscrito/a en el Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa. Sección Primera.

d) Estar dado/a de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en su actividad correspondiente.

2.4. Las personas y entidades beneficiarias de las ayudas reguladas en las presentes bases deberán tener su domicilio social y fiscal en el territorio de Gipuzkoa.

*Base 3.ª Actuaciones objeto de la subvención.*

3.1. Las ayudas del «Plan para el fomento del sector artesanal de Gipuzkoa» consistirán en subvenciones para financiar los supuestos siguientes:

a) Inversiones en inmovilizado material y gastos de lanzamiento de la nueva actividad que realicen los talleres y empresas artesanales de nueva creación.

b) Inversiones en inmovilizado material, elaboración de páginas web, y asistencia a ferias de fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa que realicen talleres y empresas artesanas existentes.

c) Proyectos específicamente dirigidos a la mejora en áreas de gestión, comercialización o innovación acometidas por organizaciones representativas del sector artesanal.

d) Organización de ferias o certámenes artesanales realizados por asociaciones u organizaciones representativas del sector artesanal.

e) Iniciativas destinadas a la preservación, basada en soportes digitales y audiovisuales y fundamentos pedagógicos, y para la posible recuperación de actividades artesanas referenciales para Gipuzkoa, en peligro de extinción.

3.2. En el epígrafe d) del apartado anterior, en el caso de actuaciones subvencionables relacionadas con la organización de ferias artesanales, éstas deberán cumplir las siguientes condiciones:

— Debe tener una duración mínima de dos días naturales.

— La participación de personas y empresas artesanas inscritas en la Sección 1.ª del Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa, deberá suponer un porcentaje mínimo del 40% de participantes de la feria.

— Todas las personas y empresas artesanas participantes deberán, a la fecha de celebración de la feria, estar en situación de alta en sus respectivos registros y documentar la pertenencia a los mismos mediante certificado.

— Deberán hacer llegar la información necesaria para su participación en la feria a las personas y empresas artesanas inscritas en la Sección 1.ª del Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa.

3.3. El Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá suscribir convenios de colaboración con asociaciones y entidades que actúen a favor de los fines de este programa y realicen acciones comprendidas en el punto c) del apartado anterior.

*4. oinarria. Proiektuak hasteko data.*

Deialdi bakoitzak ezarriko du diruz lagunduko diren jarduerak hasteko data.

*5. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

5.1. 2. oinarrian aipatutako pertsona eta erakundeek eskaera bakarra aurkeztuko dute diru laguntzaren xede den proiektu bakoitzeko, eta proiektu horrek 3. oinarrian azaldutako jarduera subentzionagarriren baten ingurukoa izan beharko du.

5.2. Diru laguntzen eskaerak aurkeztuko dituzte aurreko atalean aipatutako pertsona eta entitateek nahiz zuzenbidean baliozkoa den edozein bidez haien ordezkaritza egiaztatzen dutenek. Ondasun erkidegoen kasuan, eskaeran erkidego bakoitzak bere gain hartutako burutze konpromisoak adierazi eta onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoa duen ordezkari bat izendatu beharko da.

5.3. Deialdi bakoitzaren informazioa eskuragarri egongo da Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren web orrian, eta Departamentuaren bulegoetan.

5.4. Eskaera orria eta dokumentazioa, ahal bada, bitarteko elektroniko, informatiko eta telematiko bidez aurkeztuko dira, Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren honako web orri hauen bitartez:

Euskaraz: http://www.gipuzkoa.net/eskulangintza

Gaztelaniaz: http://www.gipuzkoa.net/artesania

Aurkezpen hori, 2004ko martxoaren 11ko 41/2004 Foru Dekretuak, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Internet bidezko harremanak arautzen dituenak, eta 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duenak, xedatutakoaren arabera egin behar da.

5.5. Aurreko paragrafoan ezarritakoa horrela bada ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan ere aurkez daitezke eskaerak.

5.6. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

5.7. Entitate eskatzaileek ez dute aurkeztu beharrik izango eskaerak izapidetzeko eskumena duen organoak jada bere eskuetan dituen agiriak, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 35.f) artikuluan aurreikusitakoaren arabera; horrela, bada, eskaera orrian adierazi beharko da agiri horiek zein egun eta organoren aurrean aurkeztu izan ziren edota, zein organok eman zituen, betiere agiri horiek aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Agiri horiek eskuratzeko modurik izango ez balitz, organo eskumendunak eska diezaioke eskatzaileari aurkez ditzala agiri horiek edo, bestela, beste bide batez egiazta ditzala agiriak jasotzen dituen betekizunak.

5.8. Eskaera orriak edo harekin batera aurkeztutako agiriek identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango zaio eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, eta ohartaraziko zaio, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatu legeak 42.1 artikuluan aurreikusitako eran.

*Base 4.ª Plazo de inicio de los proyectos.*

Cada convocatoria establecerá el plazo en el cual deben haberse iniciado las actuaciones objeto de subvención.

*Base 5.ª Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

5.1. Las personas y entidades a las que hace referencia la Base 2.ª presentarán una solicitud por cada proyecto objeto de subvención, debiendo cada uno de ellos corresponder a las actuaciones subvencionables referidas con carácter general en la Base 3.ª

5.2. Las solicitudes de subvenciones se suscribirán directamente por las personas y entidades señaladas en el apartado anterior o por quienes acrediten su representación por cualquier medio válido en derecho. En el caso de las comunidades de bienes, deberá hacerse constar en la solicitud los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro comunero y nombrarse una persona representante con poderes bastantes para cumplir con las obligaciones que como persona beneficiaria le corresponde.

5.3. La información de cada convocatoria estará disponible en la página web del Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento, pudiéndose recoger también en sus dependencias.

5.4. La instancia de solicitud y la documentación que se adjunte se presentará preferentemente y siempre que su naturaleza lo permita, por medios electrónicos, informáticos o telemáticos, a través de la siguientes webs del Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento:

Euskera: http://www.gipuzkoa.net/eskulangintza

Castellano: http://www.gipuzkoa.net/artesania

Esta presentación se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 41/2004, de 11 de marzo, por el que se regulan las relaciones entre la ciudadanía y la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de Internet, y el Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

5.5. No obstante lo establecido en el apartado anterior, las solicitudes, también, podrán presentarse por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.6. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

5.7. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder del órgano competente para la tramitación de las solicitudes, de conformidad con lo previsto en el artículo 35. f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, debiendo indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, siempre y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la persona solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

5.8. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reuniera los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de la citada Ley.

*6. oinarria. Emateko prozedura.*

Oinarri hauek araututako diru laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da, diru laguntzetarako izendatuta dagoen gehieneko zenbateko osoa 7. oinarrian ezarritako 50 puntuak gainditzen dituzten onuradunen artean hainbanatuz.

*7. oinarria. Balorazio irizpideak.*

7.1. Diru laguntzak zein eskatzaileri emango zaizkion eta zenbatekoak izango diren erabakitzeko jarraituko diren irizpideak eta balorazioa honako hau izango dira:

a) Dekretu honetako 3. oinarriko 3.1. ataleko a) eta b) puntuetan ezarritako laguntza kasuetarako:

— Jardueraren edo landutako produktuaren izaera tradizional eta herrikoia: 50 puntu.

— Proiektuak sor ditzakeen lanpostuak: 20 puntu.

— Merkaturatzeko aurreikusitako inbertsioa edota gastua: 10 puntu.

— Eskatzen duen pertsonaren edo entitatearen esperientzia/ibilbidea: 10 puntu.

— Eskatzen duen pertsonaren edo entitatearen finantza inplikazioa: 10 puntu.

b) Dekretu honetako 3. oinarriko 3.1. ataleko c) eta d) puntuetan ezarritako laguntza kasuetarako:

— Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Errolda Orokorrean izena emanda dauden eskulangintzako enpresa partehartzaileen kopurua: 40 puntu.

— Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Errolda Orokorrean, Lehen Atalean, izena emanda dauden eskulangintzako enpresa partehartzaileen kopurua: 20 puntu.

— Eskatzen duen entitatearen esperientzia/ibilbidea: 20 puntu.

— Ekimenaren berritasuna: 10 puntu.

— Eskatzen duen entitatearen finantza inplikazioa: 10 puntu.

c) Dekretu honetako 3. oinarriko 3.1. ataleko e) puntuan ezarritako laguntza kasuetarako:

— Jardueraren edo landutako produktuaren izaera tradizional eta herrikoia: 50 puntu.

— IKTen erabileraren eta irakaskuntza/ikaskuntza prozesuen arteko lotura maila: 30 puntu.

— Eskatzen duen entitatearen esperientzia/ibilbidea: 10 puntu.

— Eskatzen duen pertsonaren edo entitatearen finantza inplikazioa: 10 puntu.

7.2. Eskulangintza azokak jardueraren, ekitaldirako proposamenaren, garrantziaren eta sektorean duen ospearen arabera lagunduko dira diruz.

7.3. 50 puntu baino gutxiago dituzten proiektuek ez dute diru laguntza jasotzeko eskubiderik izango.

*8. oinarria. Finantzaketa.*

8.1. Emango diren diru laguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian zehaztuko da zein aurrekontu kredituren kargura finantzatuko diren diru laguntzak.

8.2. Diru laguntzek ezingo dute, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditu.

*Base 6.ª Procedimiento de concesión.*

El procedimiento de concesión de las subvenciones reguladas por las presentes bases será el de concurrencia competitiva, prorrateando el importe global máximo destinado a las subvenciones entre las personas y entidades beneficiarias que obtengan más de 50 puntos de conformidad con los criterios establecidos en la Base 7.ª

*Base 7.ª Criterios de valoración.*

7.1. La selección entre solicitudes y la cuantificación de las ayudas, se efectuará de conformidad con los siguientes criterios y ponderación:

a) Para los supuestos de ayudas establecidos en los puntos a) y b) del apartado 3.1 de la Base 3.ª:

— Carácter tradicional y popular de la actividad o del producto elaborado: 50 puntos.

— Generación de empleo previsto: 20 puntos.

— Inversión y/o gasto de lanzamiento previsto: 10 puntos.

— Experiencia/trayectoria anterior de la persona o entidad solicitante: 10 puntos.

— Implicación financiera de la persona o entidad solicitante: 10 puntos.

b) Para los supuestos de ayudas establecidos en los puntos c) y d) del apartado 3.1 de la Base 3.ª:

— Número de empresas artesanas participantes inscritas en el Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa: 40 puntos.

— Número de empresas artesanas participantes inscritas en el Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa, en su sección primera: 20 puntos.

— Experiencia/trayectoria anterior de la entidad solicitante: 20 puntos.

— Novedad de la iniciativa: 10 puntos.

— Implicación financiera de la entidad solicitante: 10 puntos.

c) Para los supuestos de ayudas establecidos en el punto e) del apartado 3.1 de la Base 3.ª:

— Carácter tradicional y popular de la actividad o del producto elaborado: 50 puntos.

— Grado de incardinación entre el uso de las TIC´s y los procesos de enseñanza/aprendizaje: 30 puntos.

— Experiencia/trayectoria anterior de la entidad solicitante: 10 puntos.

— Implicación financiera de la persona o entidad solicitante: 10 puntos.

7.2. Las ferias de artesanía se subvencionarán en función de su trayectoria, su propuesta para el ejercicio, su magnitud, calidad y prestigio dentro del sector.

7.3. Los proyectos que obtengan menos de 50 puntos no darán derecho a subvención.

*Base 8.ª Financiación.*

8.1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

8.2. Las subvenciones en ningún caso podrán superar el coste total de la actividad subvencionada.

*9. oinarria. Laguntzen portzentajeak eta gehieneko zenbatekoak.*

9.1. Diru laguntzen portzentajea azkenik erabakitzeko, 7. oinarrian azaldutako hautatzeko irizpideak erabiliko dira, baina segidan adierazten diren portzentaje eta zenbatekoak gehienekotzat jota:

a) Eskulangintzako lantegi eta enpresa berriak sortzea: Diru laguntza kostu hautagarrien %60rainokoa izan daiteke; sortutako enplegu bakoitzeko ezingo da 5.000 euro gainditu; eta enpresa berri bakoitzeko gehienez ere 16.000 euro eman ahal izango dira.

b) Lehengo eskulangintzako lantegi enpresen ekipamendu inbertsioak egiteko, web orriak sortzeko, eta Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo egiten diren azoketara joateko laguntzak diruz lagun daitekeen kostuaren %40rainokoak izan daitezke, eta eskulangintzako lantegi bakoitzeko gehienez ere 5.000 euro eman ahal izango dira, web orriaren diru laguntza 1.000 eurokoa baino handiagoa izan gabe. Azoketara joateko denean, diruz lagundu daitekeen gastutzat joko da azokaren antolatzaileak luzatutako zoruaren eta erakusmahaiaren alokairu faktura.

c) Eskulangintzaren alde diharduten elkarte edo erakundeek bultzatutako kudeaketa, merkaturatzea eta berrikuntza hobetzeko laguntza proiektuak: %70eraino eta gehienez ere 15.000 euro.

d) Eskulangintzako azokak edo lehiaketak antolatzea: Kostuen %40raino, 11.000 euro gehienez, 150 euro gehituta eguneko, 400 euroraino gehienez, Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Erregistro Orokorreko Lehen Atalean izena emanda dagoen eta bertaratu den gipuzkoar eskulangile bakoitzeko, 16.000 euro gehienez azoka bakoitzeko.

Eskualde mailako erakunde adierazgarriek azokak antolatzeagatik 6.000 euro gehienez, 100 euro gehituta eguneko, 300 euroraino gehienez, Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Erregistro Orokorreko Lehen Atalean izena emanda dagoen eta bertaratu den pertsona eta enpresa gipuzkoar eskulangile bakoitzeko, 8.000 euro gehienez azoka bakoitzeko.

Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Errolda Orokorreko Lehen Atalean izena emanda dagoen eta bertaratu den pertsona eta enpresa gipuzkoar eskulangile bakoitzeko gehikuntzaren xedea hari izena emateko kostua murriztea izango da.

e) Gipuzkoan erreferentziakoak izan diren eta desagertzeko arriskuan dauden eskulangintza jarduerak berreskuratzera zuzendutako ekimenak, euskarri digitaletan eta ikus-entzunezkoetan eta oinarri pedagogikoetan oinarritutakoak: % 90eraino, gehienez 35.000 euro.

9.2. Interneten bidez bidalitako eskaeren kasuan, aurreko zatietan aipatutako ehunekoek % 10eko gehigarria izango dute.

9.3. Oinarri hauen ondorioetarako, eskulangintzako lantegi eta enpresa berriak sortzean diruz lagun daitezkeen kostutzat hartuko dira inbertsio materialak eta lehenengo sei hilabeteetan jarduera berria merkaturatzeak dakartzan gastuak, hor sartu gabe soldata gastuak eta Gizarte Segurantzakoak, lehengaien erosketa eta zerga fiskalak.

*Base 9.ª Porcentajes y cuantías máximas de las ayudas.*

9.1. La determinación final de los porcentajes de subvención se realizará en función de los criterios de selección expuestos en la Base 7.ª considerándose como máximos los siguientes:

a) Apoyo a la creación de nuevos talleres y empresas artesanales: Hasta un 60% de los costes elegibles, no pudiendo superar los 5.000,00 € por empleo creado, con un máximo de 16.000,00 € por nueva empresa.

b) Apoyo a la inversión de equipamiento de talleres y empresas artesanales existentes, elaboración de páginas Web y asistencia a ferias de fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa: Hasta un 40% del coste total subvencionable, con un máximo de 5.000,00 € por taller artesanal, sin que la subvención en concepto de página Web supere los 1.000 €. En el caso de asistencia a ferias, solamente se considerará como coste subvencionable la factura correspondiente al alquiler del suelo y stand emitido por la entidad organizadora de la misma.

c) Otros proyectos de apoyo a la mejora de la gestión, comercialización o innovación acometidos por asociaciones o entidades que actúen a favor de la artesanía: Hasta el 70%, con un máximo de 15.000,00 €.

d) En el caso de organización de ferias o certámenes artesanales: Hasta un 40% de los costes con un máximo de 11.000,00 €, incrementado en 150 € al día, con un máximo de 400 €, por cada persona artesana guipuzcoana asistente inscrita en el Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa, en su sección primera, con un máximo total por feria de 16.000,00 €.

La organización de ferias por parte de organizaciones representativas de ámbito comarcal, supondrá un máximo de 6.000 € incrementado en 100 € al día, con un máximo de 300 €, por cada persona y empresa artesana guipuzcoana asistentes inscritas en el Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa, en su sección primera, con un máximo total por feria de 8.000 €.

El destino del incremento por persona y empresa artesana guipuzcoana asistente que figuren en el Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa, en su sección primera, será minorar, en su caso, el coste de inscripción de la feria.

e) Iniciativas destinadas a la preservación, basada en soportes digitales y audiovisuales y fundamentos pedagógicos, para su posible recuperación, de actividades artesanas referenciales para Gipuzkoa, en peligro de desaparición: Hasta el 90% con un máximo de 35.000,00 €.

9.2. En el caso de solicitudes presentadas por Internet, los porcentajes señalados en los apartados anteriores se ampliarán hasta en un 10% adicional.

9.3. A los efectos de las presentes bases reguladoras, en el apoyo a la creación de nuevos talleres y empresas artesanales tendrán la consideración de gastos subvencionables las inversiones materiales, así como los gastos derivados del lanzamiento de la nueva actividad durante los seis primeros meses, sin considerarse como tales los gastos salariales y de Seguridad Social, compra de materias primas, ni tributos fiscales.

*10. oinarria. Prozedura antolatu eta izapidetzeko eskumena duen organoa.*

10.1. Diru laguntzak emateko prozeduraren izapidetzea Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuko Jakintza eta Enpresa Jarduera Sustatzeko Zerbitzuari dagokio. Hori izango da ebazpen proposamena egiteko beharrezko datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezko jotzen dituen jarduera guztiak ofizioz egingo dituenak.

10.2. Aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko ebaluazio batzorde bat eratuko da, ondorengo kideez osatuta:

— Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapeneko zuzendari nagusia.

— Jakintza eta Enpresa Jarduera Sustatzeko Zerbitzuko burua.

— Jakintza eta Enpresa Jarduera Sustatzeko Zerbitzuko teknikari bat.

— Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuko idazkari teknikoa.

10.3. Batzorde horrek bidezko irizten dituen aholkularitza eta txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratzeko.

*11. oinarria. Ebazpena.*

11.1. Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko ebazpena Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuko foru diputatuak edo Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapeneko zuzendari nagusiak emango du, Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

11.2. Ebazpena gehienez ere 6 hilabeteko epean jakinaraziko da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita, non eta deialdian ez den epe hori luzatzen. Gehieneko epea amaituta ebazpena berariaz jakinarazi ez bada, interesatuak legitimatuta daude diru laguntza eskaera isiltasun administratiboagatik ezetsita dagoela ulertzeko.

